

**8/2014 FORU ARAUA, ekainaren 11koa, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko zergari buruzkoa (BAO Ekainaren 17koa)**

Jakinarazten dut Bizkaiko Batzar Nagusiek 2014ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran onartu dutela 8/2014 Foru Araua, ekainaren 11koa, Energia Nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko zergari buruzkoa, eta arau hori aldarrikatu eta argitaratzeko agindua ematen dut, aplikatu ahal zaien herritar, norbanako eta agintari guztiek bete dezaten eta betearaz dezaten.

**EKAINAREN 11KO 8/2014 FORU-ARAUA, ENERGIA NUKLEOELEKTRIKOA SORTZETIK DERIBATUTAKO ERREGAI NUKLEAR AGORTUA ETA HONDAKIN ERRADIOAKTIBOAK SORTZEAREN GAINEKO ZERGARI BURUZKOA**

**HITZAURREA**

2014ko apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bidez, Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna aldatzeko 2014ko urtarrilaren 16an hartu zuen erabakia onetsi da.

Ekonomia-itunaren Batzorde Mistoak hartutako erabaki horren edukiak -Batzar Nagusiek 2014ko martxoaren 26ko 1/2014 Foru Arauaren bidez berretsi dute erabaki hori, eta aipatutako legeak aldarrikatu du- berekin ekarri du tributur berriak (orain arte gure tributur-sisteman ez zeudenak) ituntzea, zegoeneko itunduta zeuden beste batzuen ituntze-baldintzak aldatzeaz gainera.

Itundu berri diren tributuetako bat da Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko Zerga, eta, indarrean dagoen Ekonomia Ituneko 23 quinquies artikuluan xedatutakoaren arabera, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura eraentzeko. Hori dela eta, xedapen hau eman behar da, zerga berriaren arauaketa gure ordenamenduan sartzeko, Ekonomia Itunean ezarritako lotura-puntuak jasota.

Zerga hau iraunkortasun energetikorako neurri fiskalei buruzko abenduaren 27ko 15/2012 Legearen bidez sortu zen, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzeak eragindako ingurumenaren arloko kostuak barneratzeko. Zuzeneko tributur bat da, izaera erreala duena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 55. artikuluko 1. eta 3. zenbakietan xedatutakoa betetzeko, memoria ekonomikoari buruzko txostena eta genero-eraginaren ebaluazioari buruzko txostena doaz foru arau honekin batera.

**1. artikulua. Izaera.**

Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzearen gaineko Zerga zuzeneko tributur bat da, izaera erreala duena, eta foru arau honetako 4. artikuluan definitutako jarduerak kargatzen ditu. Jarduera horiek haren zerga-egitatea osatzen dute.

## **2. artikulua. Aplikatu beharreko arawak.**

1. Ekonomia Ituneko 23 quinquies artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga hau foru arau honetan eta araua garatzen duten xedapenetan xedatutakoa kontuan hartuta galdutako da.
2. Foru arau honen bitartez ezarritakoak ez du eraginik izango barne-ordenamenduaren parte diren nazioarteko itun eta hitzarmenetan.

## **3. artikulua. Zergaren ordainarazpena.**

Zergaren ordainarazpena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako erregai nuklear agortua eta hondakin erradioaktiboak sortzen diren instalazioak Bizkaiko Lurralde Historikoan daudenean.

## **4. artikulua. Zerga-egitatea.**

1. Honako hau da zerga-egitatea:
  - a) Erreaktore nuklear bakoitzetik deribatutako erregai nuklear agortua sortzea.
  - b) Energia nukleoelektrikoa sortzetik deribatutako hondakin erradioaktiboak sortzea.
2. Aurreko zenbakiko a) letran xedatutakoari dagokionez, irradiatutako erregai nuklearra hartuko da erregai nuklear agortutzat, hura erreaktoretik behin betiko ateratzen denean.

Erreaktoretik ateratako erregai nuklear agortua gero berriz ere erreaktore horretan sartzen bada eta lehenagoko ateratze batean aurreko zenbakiko a) letran jasotako zerga-egitatea sortu bada, berriro ateratzeak ez du beste zerga-egitate bat sortuko.

## **5. artikulua. Zergadunak.**

1. Zerga honen zergadun izango dira foru arau honetako 4. artikuluan adierazitako jardueretatik edozein egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauko 34. artikuluko 3. zenbakian aipatzen diren erakundeak.
2. Zerga-egitatea sortzen duten instalazio nuklearren jabeak instalazioen ustiatzaileekin bat ez datozenean, lehenak zergaren zorraren erantzule solidarioak izango dira.

# **I. KAPITULUA ERREGAI NUKLEAR AGORTUA**

## **6. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.**

1. Zergaldia erreaktore bakoitzaren eragiketa-zikloarekin bat etorriko da. Zergadun bakoitzak erreaktoreak bezainbeste zergaldi izango ditu. Erreaktorea kargatzeko ondoz ondoko bi etenaldiren artean igarotzen den denbora-tartea izango da eragiketa-zikloa. Era berean, eragiketa-zikloa hura karga-etenaldi baten ostean berriz ere sare elektrikora konektatzen den egunean abiaraziko da, eta hurrengo karga-etenaldiaren ostean berriz konektatzen denean amaituko da.
2. Zergadunak, foru arau honetako 4. Artikuluko 1. Zenbakiko a) letran adierazten den zerga-egitatea osatzen duen jarduera burutzean jarduera eteten badu, etetea gertatzen den egunean bertan amaituko da zergaldia.
3. Zergaldiaren azkeneko egunean sortuko da zerga.

## **7. artikulua. Zerga-oinarria.**

1. Erregai nuklear agortuan dauden metal astunaren kilogramoek osatuko dute zerga-oinarria. Bertan dauden uranioa eta plutonioa izango dira, hain zuzen, metal astunak.
2. Foru arau honetako 4. artikuluko 1. zenbakian a) letran xedatutakoarekin bat etorritz, erregai nuklear agortua erauzi den erreaktore nuklear bakoitzerako zehaztuko da zerga-oinarria.
3. Ustiapena behin betiko eteten den kasuetan, honako hau izango da erreaktoreko erregai guztiaren behin betiko erauzketari dagokion zerga-oinarria: aurreko lau karga-etenaldietan erreaktoretik behin betiko izaeraz erauzi den erregai nuklearreko metal astunaren pisuari dagokion batez besteko aritmetikoa.

## **8. artikulua. Zerga-tasa eta zerga-kuota.**

Zerga-oinarriari metal astunaren kilogramo bakoitzeko 2.190 euroko zerga-tasa aplikatzean lortutako emaitza izango da zerga-kuota.

## **9. artikulua. Likidazioa eta ordainketa.**

1. Zergadunek nahitaez autolikidatu beharko dute zerga eta nahitaez ordaindu beharko dute dagokion kuota, zergaldi bakoitza amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen hogeit egun naturalen barruan, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako arauak eta ereduak jarraiki.
2. Ekaineko eta abenduko lehen hogeit egun naturaletan, zergadunek ordainketa zatikatu bat egin beharko dute adierazitako hilabete bakoitzeko 1. egunean abian den zergaldi bakoitzari dagokion likidazioaren kontura, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako arauak eta ereduak jarraiki.
3. Honako hauek osatuko dute zatikako ordainketa kalkulatzeko oinarria: abian den zergaldian erreaktoretik behin betiko erauzi behar den erregai nuklear agortuko metal astunaren kilogramoak, honako zatidura honekin biderkatuta:
  - Zenbakitzailean, abian den zergaldiko lehen egunetik zatikako ordainketa egiteko epea abiarazi arte igarotako egun-kopurua;
  - Izendatzailean, abian den zergaldiak iraungo duen aurreikusitako egun-kopurua.

Horrenbestez, honako hau izango da zatikako ordainketaren zenbatekoa: aurreko lerrokan aurreikusitako oinarriari 8. artikuluan zehaztutako zerga-tasa aplikatetik lortzen dena, zergaldian burututako zatikako ordainketak kenduta.

## **II. KAPITULUA ENERGIA NUKLEOELEKTRIKOA SORTZETIK DERIBATUTAKO HONDAKIN ERRADIOAKTIBOAK**

## **10. artikulua. Zergaldia eta zergaren sortzapena.**

1. Zergaldia urte naturalarekin bat etorriko da.
2. Zergadunak, foru arau honetako 4. Artikuluko 1. Zenbakiko b) letran adierazten den zerga-egitatea osatzen duen jarduera burutzean jarduera eteten badu, etetea gertatzen den egunean bertan amaituko da zergaldia.
3. Zergaldiaren azkeneko egunean sortuko da zerga.

## **11. artikulua. Zerga-oinarria.**

1. Ekoitzi diren jarduera ertaineko, baxuko eta oso baxuko hondakin erradioaktiboen metro kubikoek osatzen dute zerga-oinarria, hondakin horiek instalazioan bertan aldi baterako biltegitratzeko egokituak izan direnean.
2. Zerga honen zerga-egitatea osatzen duten jarduerak gauzatzen dituen instalazio bakoitzarentzat zehaztuko da artikulua honetan definitutako zerga-oinarria.

## **12. artikulua. Zerga-tasa eta zerga-kuota.**

Zerga-oinarriari karga-tasa hauek aplikatzearen emaitza izango da tributu-kuota:

- a) Jarduera txikiko eta ertaineko hondakin erradioaktiboen kasuan, 6.000 euro metro kubiko bakoitzeko.
- b) Oso jarduera txikiko hondakin erradioaktiboen kasuan, 1.000 euro metro kubiko bakoitzeko.

## **13. artikulua. Likidazioa eta ordainketa**

1. Zergadunek nahitaez autolikidatu beharko dute zerga eta nahitaez ordaindu beharko dute dagokion kuota, zergaldi bakoitza amaitu eta hurrengo hilabeteko lehen hogeitun egun naturaletan, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako arauari eta ereduari jarraiki.
2. Ekaineko eta abenduko lehen hogeitun egun naturaletan, zergadunek zatikako ordainketa bat egin beharko dute hilabete horietako lehen egunean abian den zergaldi bakoitzari dagokion likidazioaren kontura, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak zehaztutako arauari eta ereduari jarraiki.
3. Zatikako ordainketen zenbatekoa artikulua honetako 2. zenbakian xedatutakoaren arabera zatikako ordainketaren aldi bakoitzari dagozkion zerga-oinarriaren zenbateko zehatzak kontuan hartuta kalkulatu da, 12. artikuluko zerga-oinarria aplikatuta.

## **14. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.**

Zerga honi dagozkion arau-hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritakoaren arabera sailkatuko eta zigortuko dira.

# **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

## **Lehenengoa. Zatikako ordainketak eta zerga-oinarria kalkulatzeko.**

Foru arau honetako 17. artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe, erreaktorean 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen txertatutako elementu erregaiak behin betiko izaeraz erauzten diren zergaldietan, elementu horiei dagokien erregai nuklear agortuaren ekoizpenari buruzko zergaren zerga-oinarria kalkulatzeko, horietan dauden metal astunak honako zatidura honekin biderkatuko dira:

- Zenbakitzailean, 2013ko urtarrilaren 1etik zergaldia amaitzen den egunera arte igarotako egun-kopurua.
- Izendatzailean, sare elektrikora konektatutako egunaren -2013ko urtarrilaren 1a baino lehen egindako azken karga-etenaldiaren ostean- eta zergaldia amaitzen den egunaren artean igarotako egun-kopurua.

Era berean, eta zergaldi horien ondorioetarako, 9. artikuluan zehaztutako zatikako ordainketak kalkulatzeko, aurreko kalkulutik eragindako metal astunaren kilogramoak hartuko dira kontuan.

Xedapen iragankor hau ez da aplikatzekoa izango erreaktoreak 2013. urtean zehar erregai nuklearrik ez badu.

### **Bigarrena. Zergaldia.**

Foru arau honetako 6. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta lehen zergaldirako baino ez, 2013ko urtarrilaren 1a hartuko da erreaktore bakoitzaren eragiketa-zikloaren hasierako data gisa, erreaktoreak data horretan erregai nuklearrik ez duen kasuetan izan ezik. Kasu horretan, data horren ostean sarera egin den lehen konexioa hartuko da hasierako data gisa.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

### **Bakarra. Arauak indargabetzea.**

Indargabetuta geratzen dira foru arau honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

## **AZKEN XEDAPENAK**

### **Lehenengoa.**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean foru arau hau, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

### **Bigarrena.**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Ogasun eta Finantzen foru diputatuak foru arau hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emango dituzte.

Bilbon, 2014ko ekainaren 11n.

Batzar Nagusietako Lehenengo Idazkariak,

JON ANDONI ATUTXA SAINZ

Batzar Nagusietako Lehendakariak,

ANA MADARIAGA UGARTE